

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco

# OHIKO GALDEREN ERANTZUNAK

Koronabirusari aurre egiteko neurri zehatzak

2021eko irailaren 18an eguneratutako dokumentua

*Euskadi, bien común*





## Aurkezpena

Dokumentu honek, ohiko galderen erantzunen zerrenda baten bidez, honako hauen edukia hobeto ulertzen eta interpretatzen lagundu nahi du:

·38/2021 Dekretua, irailaren 17koa, lehendakariarena, SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko prebentzio-neurriak testu bakar batean bildu, eguneratu eta zehaztekoa.

Dokumentu hau interpretatzailea baino ez da, eta ez du inola ere ordeztzen dagokion aldizkari ofizialean argitaratutako dekretuaren edukia.

Herritarren zalantzak, orain arte egin den bezala, ZUZENEAN herritarrentzako zerbitzuaren bidez bideratuko dira:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurларitza/zuzenean-herritarrentzako-zerbitzua/>



## I. Mantendu beharreko prebentzio-jarrerak

1. Maskara erabiltzea.
2. Barrualdeak etengabe aireztatzea.
3. Pertsonen arteko distantzia.
4. Eskuen eta gainazalen higiena.
5. Jende pilaketak saihestea.
6. Txertaketan parte hartzea.
7. Kasuen miaketan laguntzea eta, hala dagokionean, berrogeialdiak eta isolamenduak betetzea.



## II. Aplikazio orokorreko neurriei buruzko galderak eta erantzunak

### **MASKARAREN ERABILPENARI BURUZKOA**

#### **1. Noiz da derrigorrezkoa maskara erabiltzea?**

Sei urtetik gorako pertsonak nahitaez erabili beharko dute maskara erabilera publikoko edozein gunen itxitan edo jendearentzat irekita dagoen edozein gunetan.

Aire zabaleko espazioetan maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da, baldin eta pertsonen arteko gutxienezko distantzia 1,5 metrokoa izatea ezinezkoa bada.

Ordutegiak zabaltzeko, edukiera handitzeko eta murrizketak lasaitzeko egungo etapan, maskara erabiltzeak prebentzio-garrantzi handiagoa hartzen du, batez ere barnealdeetan.

#### **2. ¿Nahitaezkoa al da ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduetan, txoko, joko-areto edo lonjetan, maskara erabiltzea?**

Bai. Ostalaritzako eta jatetxeetako establezimendu eta zerbitzuetan zein txoko, joko-areto edo lonjetan, maskara erabiltzeko betebeharra jateko edo edateko unean bakarrik kentzen da. Bestela, nahitaez erabili behar dira uneoro, bai barrualdeetan, bai terrazetan.

#### **3. ¿Kendu dezaket maskara kirola egiten dudanean?**

Kirol-praktika barne-espazioetan egiten bada, maskara nahitaez erabili behar da. Kendu ahal izango da espazio naturaletan, oinezkorik gabeko hiri-ingurune periferikoetan, igerilekuetan, lehiaketa profesional edo erdi-profesionalean murgildutako taldeen entrenamenduetan eta lehiaketetan eta kanpoko jarduera fisiko biziko ezohiko uneetan.

#### **4. Derrigorrezkoa al da maskara erabiltzea garraioa erabiltzen denean?**

Sei urtetik gorakoek nahitaez erabili behar dituzte maskarak, edozein garraibide erabiltzen denean, bidaia hasten denetik amaitzen den arte, salbuespen-kasu legeletan izan ezik. Ez da exijituko maskara erabiltzea garraio pribatuan, bidaiariak etxebizitza berean bizi badira. Garraio-profesionalak maskara eraman beharko du zerbitzuan dagoen bitartean, bere lan-eremua gelaxka batean edo babes-manpara batez mugatutako gela batean publikotik bereizita ez badago.



## **MERKATARITZA-, GIZARTE- ETA KULTURA-JARDUEREI ETA EDUKIEREI BURUZKOA**

### **5. Zein da jarduera komertzial, sozial eta kultural guztiak uzteko ordutegia?**

Merkataritza-, gizarte- eta kultura-jarduera guztietarako gehieneko itxiera-ordutegia 03:00ak artekoa izango da. Nolanahi ere, ordutegiei buruzko araudi arrunt aplikagarria dagoenean, ordutegi hori dagokion ordutegira egokitu ahal izango da, goizago bada ere. Irekitzeko ordutegia ohiko arauen arabera izango da.

### **6. Zein da garraio publikoaren ordutegia?**

Garraio publikoaren ordutegia dagokion araudira egokituko da lurralde-eremu bakoitzean.

### **7. Zein da merkataritza-, gizarte- eta kultura-jardueretan baimendutako edukiera?**

Jardueretan baimendutako gehieneko edukiera %75ekoa da lokal eta instalazio guztietan, muga espezifiko bat aplikatzen zaienetan izan ezik.

### **8. Lokalen aireztapena nahitaezkoa da?**

Lokal eta instalazio guztiak etengabe aireztatu beharko dira.

### **9. Zer edukiera muga errespetatu behar dute gizarte-, kultura- edo kirol-ekitaldiek?**

3.000tik beherako edukiera duten esparruetan gehienez egon daitekeen pertsonakopurua, 1.500 pertsonakoa izango da barnealdeetan, eta 1.800 pertsonakoa kanpoan.

3.000 lagunetik gorako edukiera duten esparru itxietan, gehieneko edukiera ezin izango da %40tik gorakoa izan, eta esparru irekietan, berriz, %60tik gorakoa. Maskara etengabe erabili behar da esparru horietako edozein gertakaritan. Ahal den guztietan, 1.000 pertsonatik beherako sektore independenteak ezarriko dira, sarbideekin eta igarobide independenteekin.

Aire zabalean egiten diren ekitaldietan, bai hiri-inguruneetan bai natura-ingurunean, erakundeak Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren jarraibideak errespetatu beharko ditu, jarduera horietan jendeak parte har dezan.

### **10. Zer edukiera errespetatu behar dute adinekoen zentroek eta erretirodunen klubek?**

Establezimendu horiek ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak badituzte, ostalaritza-sektoreari aplikatzen zaizkion arauak errespetatu beharko dituzte.

Zerbitzu horiek ez badituzte, edozein establezimendu edo instalaziotarako ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira.



### **11. Zer egin behar da baimendutako edukieraren %75 betetzean ezin bada 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde?**

Esparru batean edukieraren %75 baimendua osatzeko 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde ezin denean, ez da aplikatuko pertsonen arteko bereizketa-neurri hori. Hala izango da, esparruaren ezaugarriek uzten badute.

Distantzia hori mantentzea ezinezkoa denean, gehiago nabarmenduko da maskara erabiltzeko beharra, eta, beraz, hura zorrotz bete beharra mantentzen da, bai eta barnealdeak etengabe eta behar adina aireztatu beharra eta gainerako prebentzio-neurriak ere.

1,5 m-ko distantzia gordetzea ezinezkoa denean, pertsonen arteko ahalik eta distantzia handiena gordetzea gomendatzen da.

## **OSTALARITZARI ETA JATETXEEI BURUZ**

### **12. Zer muga dituzte ostalaritzako eta sukaldaritzako establezimenduek?**

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduen barrualdeetan, edukieraren %75eko muga ezartzen da. Gainera debekatua dago barran edo zutik kontsumitzea. Mahai batetik bestera 1,5 metroko tartea utzi beharko da.

Barnealdeetan, zerbitzua gehienez zortzi lagunekoa izan daiteke mahai edo mahai talde bakoitzeko, eta 12koa terrazetan. Maskara nahitaez erabili behar da, irensten denean izan ezik.

### **13. Zer ordutegi onartzen zaie ostalaritza eta jatetxeei?**

Ordutegien erregulazio arruntaren arabera aplikatzekoa, gehienez ere 03.00etako ordu-muga gainditu gabe.

### **14. Dantzatu al daiteke taberna batean?**

Dekretu berriak gaueko aisialdiko establezimenduetako pistetan –eta maskara nahitaez erabili behar dutenetan– soilik dantzatzeko aukera baimentzen du. Gogoratu behar da ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduetan mahaian eserita kontsumitzeko betebeharraren helburua zutik egoteak dakarren interakzio soziala saihestea dela, arrisku gehiago eragiten duelako.

### **15. Zer baldintza bete behar dira joko- eta apustu-lokaletarako?**

Joko- eta apustu-establezimenduen barruko edukiera %75 izango da. Ostalaritza- edo jatetxe-zerbitzua badute, sektore horretarako aurreikusitako baldintzak beteko dituzte.

### **16. Zer baldintzatan irekitzen dira txokoak eta elkarte gastronomikoak?**

Arau hauek beteko dituzte:

– Edukieraren %75eko muga ezartzen da, barran edo zutik edozein kontsumo debekatzen da eta maskara nahitaez erabili behar da, ahoratzen den unean izan ezik.



– Erabiltzaileen antolaketan, mahai bakoitzeko zortzi pertsona baino gehiago ez dira egongo, bizikideen kasuan izan ezik.

### **17. Ireki al ditzakete lonjak, gazte-lokalak eta antzekoak?**

Lonjak, gazte-lokalak eta antzekoak berriro ireki ahal izango dira 16 eta 29 urte bitarteko adin-tartean txertaketak jarraibide osoaren %85 gainditzen duen unetik aurrera. Osasun Sailaren webguneak (<https://www.euskadi.eus>) informazio hori zabalduko du, eta erreferentzia eraginkorra izango da esparru horiek irekitzeko. Berriz irekitzen direnetik, erregela hauek bete beharko dira:

– Edukieraren %75eko edukiera-muga zehazten da, barran edo zutik kontsumitzeko debekua, bai eta maskara nahitaez erabiltzea ere, irensteko unean izan ezik.

### **18. Ireki dezake gaueko aisiak?**

Bai, baldintza espezifiko hauekin:

– Aireztapen egokia eta konstantea eta edukiera-muga barruan edukieraren %50ean mantentzea erabaki da, eta debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea. Maskara nahitaez erabili beharko da, irensten den unean izan ezik.

– Mahai batetik bestera 1,5 metroko tartea utzi beharko da. Barnealdeko zerbitzua mahai edo mahai talde bakoitzeko zortzi lagunekoa izan daiteke, eta terrazetan hamabi lagunekoa. Dantza-pista maskara batekin bakarrik erabili ahal izango da.

### **19. Zer baldintzatan egin daiteke kontzertu edo antzeko ekitaldi bat?**

Pertsonak pilatzea dakarten kontzertu edo ekitaldi sozialetan parte hartzeko, bai kanpoan bai barruan, indarrean dauden prebentzio-neurriak aplikatu behar dira. Ekitaldi horietako bakoitza antolatzen duen erakundeak prebentzio-protokolo bat izan behar du, onartutako Dekretu berrian oinarrituta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak egiten dituen gidalerroen eguneratzearen arabera

### **20. Gehienez zenbat pertsona egon daitezke museoak, erakusketa-aretoak, natura-turismoa edo jolas- edo turismo-zentroak bisitatzeko dituzten taldeetan?**

Museoetan, erakusketa-aretoetan, natura-turismoan eta aisialdi- eta turismo-zentroetan, barrualdean egiten diren bisitetan, taldeak gehienez ere 20 pertsonakoak izango dira. Kanpoan egiten badira, ez dago mugarik Eskola-talde egonkorrek gida bakarrarekin joan ahal izango dira museoetara.

### **21. Zer baldintzatan garatu behar dira haurrentzako eta gazteentzako hezkuntza-aisialdiko jarduerak?**

Aisialdiko jarduerak antolatzen dituzten erakundeek COVIDen aurkako protokolo bat izan beharko dute prebentzio-neurri guztiak benetan betetzen direla bermatzeko, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideei jarraikiz.



## **22. Zenbat pertsona izan daitezke taldeak barruko instalazioetan kirola egitean?**

Barruko instalazioetako kirol-jarduera 16 pertsona arteko taldeetan egituratu ahal izango da.

Aldagelak erabiltzeko, gehieneko edukieraren %50 okupatuko da, eta dutxak banaka erabiliko dira edo bi metroko pertsonen arteko distantzia mantenduta.

Horrez gain, Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak oro har edo haren eremu espezifikotako kirol-jarduera garatzeko ezartzen dituen gidalerroak eta gidak errespetatu beharko dira.

## **OSASUN-ERANTZUKIZUNEN BETEBEHARREI BURUZKOA**

### **23. Behartuta al nago kutsadurak arakatzen eta horien trazabilitatea egiten laguntzera?**

Bai. COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 16.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, kutsatutako pertsonak eta haiekin kontaktua izan dutenak behartuta daude kutsadurak arakatzen eta horien trazabilitatea egiten laguntzera, eta, beraz, herritarrei eskatzen zaie jarraipenaren arduradunek zuzendutako deien arretan zorrotzasunez jokatzeko, eta eskatutako informazio guztia ahalik eta azkarren eta egiazkotasunik handienarekin ematea.

### **24. Derrigor konfinatu behar al dut neure burua agerraldi epidemiko baten eraginpean egonez gero?**

Bai. COVID-19aren pandemia kudeatzeko neurriei buruzko ekainaren 24ko 2/2021 Legearen 23. artikuluan xedatutakoaren arabera, epidemia-agerraldiak kaltetutako pertsonak konfinatzeko betebeharrak pertsonala dute, eta, horren ondorioz, isolamendu-betebeharrak zorrotz bete beharko dituzte, beste pertsona batzuekin lekualdatzeko edo aurrez aurre erlazionatzeko aukerarik gabe, bai eta berrogeialdiak betetzeko kutsatu izanaren susmoa duten beste pertsona edo pertsona-talde guztiei dagokienez. Horiek guztiek osasun-agintarien edo -zerbitzuen jarraibideak bete beharko dituzte, indarrean dauden protokoloen eta kasu bakoitzaren egoera zehatzaren arabera.

## **INFORMAZIO GEHIAGO**

### **25. Non aurkitu dezaket informazio gehiago?**

•Jarduera desberdinetarako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzak ezarritako jarraibideei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo esteka honetara:

<https://www.euskadi.eus/covid-19-koronabirus-berriaren-protokoloak/web01-a2korona/eu/>

•Bizi Berri IV Plana kontsultatu nahi izanez gero, jo esteka honetara:

[https://bideoak2.euskadi.eus/2021/07/07/news\\_70474/Bizi\\_Berri\\_IV\\_eus.pdf](https://bideoak2.euskadi.eus/2021/07/07/news_70474/Bizi_Berri_IV_eus.pdf)





## Irailaren 18tik aurrera indarrean dauden neurri nagusiak, COVID-19aren aurrean

## Principales medidas en vigor frente a la COVID-19 desde el 18 de septiembre

**Maskara.** Nahitaez erabili behar da barnealdeetan eta kanpoan segurtasun-distantzia mantendu ezin denean.



**Mascarilla.** Su uso es obligatorio en interiores, y en exteriores siempre que no se pueda mantener la distancia de seguridad.

**Ordutegiak.** 03:00etan, establezimenduak ixtea eta kultura-, gizarte- eta merkataritza-jarduerak etetea.



**Horarios.** Cierre de establecimientos y cese de actividades culturales, sociales y comerciales a las 03:00h.

**Edukierak.** Bai merkataritza bai oro har, %75, muga espezifiko bat aplikatzen denean izan ezik.



**Aforos.** Tanto en el comercio como con carácter general, 75%, salvo cuando se aplica una limitación específica.

**Publikoa ekitaldietan.** Edukiera, oro har, % 75ekoa da. 3.000 pertsonatik beherako esparruetan, 1.500 pertsonatik beherakoa izango da barrualdean, eta 1.800 kanpoan. 3.000 baino gehiagoko esparruetan, gehieneko edukiera ezin izango da %40 baino handiagoa izan barrualdean eta %60 kanpoan.



**Público en eventos.** El aforo es del 75% con carácter general. En recintos de menos de 3.000 personas, no superará las 1.500 en interiores y las 1.800 en exteriores. En recintos de más de 3.000, el aforo no podrá superar el 40% en interiores y el 60% en recintos abiertos.

**Ostalaritza.** Barrualdean edukiera %75ekoa da. Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 8 pertsona, eta terrazetan 12. Nahitaezkoa da maskara erabiltzea, irensteko unean izan ezik. Joko-lokaletan muga berberak aplikatuko dira.



**Hostelería.** Aforo en interiores del 75%. Prohibido consumo en barra o de pie. En cada mesa, máximo 8 personas y en terrazas de 12. Mascarilla obligatoria salvo en el momento de la ingesta. En locales de juego son de aplicación las mismas limitaciones.

**Txokoak.** %75eko edukiera. Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean, gehienez 8 pertsona. Nahitaezkoa da maskara, irensteko unean izan ezik. Etengabe aireztatzeko betebeharra.



**Txokos.** Aforo del 75%. Prohibido consumo en barra o de pie. En cada mesa, máximo 8 personas. Mascarilla obligatoria salvo en el momento de la ingesta. Obligación de ventilación constante.

**Gaueko aisia.** Jarduerari berrekin ahal izango diote %50eko edukierarekin. Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea. Mahai bakoitzean gehienez 8 pertsona eta terrazetan 12. Nahitaezkoa da maskara erabiltzea, irensteko unean izan ezik. Dantza-pistak maskarekin erabili ahal izango dira soilik.



**Ocio nocturno.** Podrán reanudar su actividad con un aforo del 50%. Prohibido consumo en barra o de pie. En cada mesa, máximo 8 personas y en terrazas de 12. Mascarilla obligatoria salvo en el momento de la ingesta. El uso de pista de baile solo podrá realizarse con mascarilla.

**Gazteen lonjak eta lokalak.** Berriro ireki ahal izango dira 16 eta 29 urte bitarteko adin-tartean txertaketak jarraitu osoarekin %85 gainditzen duen unetik aurrera.



**Lonjas y locales juveniles.** Podrán proceder a su reapertura en el momento en que la vacunación en la franja de edad de entre 16 y 29 años, supere el 85% de pauta completa.

**Kirola egitea.** Barneko instalazioetan, gehienez 16ko taldeak. Gehieneko edukieraren %50ean erabili ahal izango dira aldagelak, eta dutxiak banaka edo 2 metroko distantzia mantenduz.



**Práctica deportiva.** En instalaciones interiores, grupos con un máximo de 16. Uso de vestuarios al 50% y uso individual de duchas o mantenimiento de distancia de 2 metros.

**Mantendu beharreko prebentzio-jarrerak.** Maskara erabiltzea, barrualdeak etengabe aireztatzea, pertsonen arteko distantzia, eskuen eta gainazalen higieena, Jende pilaketak saihestea, txertaketan parte hartzea, eta kasuen miaketan laguntzea eta, hala dagokionean, berrogeialdiak eta isolamenduak betetzea.



**Actitudes de prevención que deben mantenerse.** Uso de mascarilla, ventilación constante de interiores, distancia interpersonal, higiene de manos y de superficies. Evitar aglomeraciones, participar en la vacunación, y colaborar con el rastreo de casos y cumplir, cuando corresponda, con cuarentenas y aislamientos.

## Garai berri bati ekiteko konpromisoak

## compromisos para iniciar un nuevo tiempo

*Euskadi, auzolana, bien común*

